

HESIAK ERALDATZEN TRANSFORMANDO MUROS



IRAKASLEAREN KOADERNOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Asociación de Amigos y
Amigas de la RASD de Álava
Arabako SEADen Lagunen Elkartea



Asociación de Amigos y
Amigas de la RASD de Álava

Arabako SEADen Lagunen Elkartea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argitaletxea: SEADen Lagunen Elkartea

Egileak: Lorena Fernández, Josune Bejarano, Mentxu Cámara, Marta Ponce, Marilo Ruiz de Galarreta

Ordaindu du: Vitoria-Gasteizko Udalak

Itzulpena: Nerea Gallastegi

Diseinua eta maketazioa: San Martín Impresión Digital

Marrazkiak: Enrique Morente

Inprimatzea: San Martín Impresión Digital



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0

Este documento está bajo una licencia de Creative Commons.

Se permite libremente copiar, distribuir y comunicar públicamente esta obra siempre y cuando se reconozca la autoría y no se use para fines comerciales.

No se puede alterar, transformar o generar una obra derivada a partir de esta obra.

Licencia completa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

HESIAK ERALDATZEN - TRANSFORMANDO MUROS

Munduan gertatzen ari diren aldaketek eta jazoerek planeta globalizatu honetan zer egiten ari garen eta gure rola zein den berraztertzea bultzatzen gaituzte. Egunero-egunero ikusten dugu gure bizilekutik milaka kilometrotara jazotzen diren gertaerek (krisialdi ekonomikoak edo ekologikoak, gatazka politiko edo sozialak...) eragin zuzena dutela geure bizimoduan.

Ondorioz, zalantza beteriko garaian bizi gara, aldaketak etengabe eta azkar gertatzen dira eta, askotan, ez gara berauek ulertzeko gai. Horregatik, ulergaitzak diren jazoera horiek guztiak egun puri-purian dagoen **Globalizazio**¹ -prozesuaren zati direla sinetsi nahi dugu.

Globalizazioa **neoliberalismoarekin**² estuki loturik dagoen prozesua da, eta azken horrek zuzenez eragiten die pertsoneri; izan ere, salgaien eta kapitalaren zirkulazio askea eragozten duten oztopoak desagerraraztea helburu duen neurrian, pertsonen mugikortasuna eta herrien arteko zatiketa sustatzen duten hesiak eraikitzea bultzatzen du.

Esate baterako, Australian, Howard Line delakoak itsasontziz iritsi nahi duten etorkinengandik babesten du kontinente-irla, ontziak itzultzera behartuz eta baita hondoratuz ere. AEBetan, Latinoamerikatik sartu nahi duten etorkinak geldiarazteko, herrialde horren eta Mexikoren arteko muga 1.200 kilometroko hesia eraikitzea onartu da (San Diego, Tijuana, El Pason eta Ciudad Juarez badiara jada, antzeko hesiak). Indian ere, hesia eraikitzen ari dira Bangladesheko muga, etorkinak geldiarazteko. Palestinan, biztanle guztiak daude preso, hesi erraldoi batek inguratzen baititu. Hesiaren xedea palestinar herria betiko menderatu, zigortu eta desagerraraztea da. Azkenik, 1975etik Marokok legez kanpo okupaturik dituen Mendebaldeko Saharako lurretan ere hesi bat dago eraikita, eta ondorioz, Tindufeko kanpamenduetan erbesteraturik dauden sahararrak beren herrialdetik urrun eta bazterturik bizi dira.³

Hesi arrazistak, merkatu librearen hesiak, hesi sexistak, herriak eta pertsonak banatzen dituzten hesiak, hesi fisikoak eta sinbolikoak..., denak baztertzailak. Neoliberalismoak mugak zabaltzen dizkio kapitalari eta aukera berriak eskaini; pertsoneri, ideiei eta ametsei, berriz, mugak jartzen dizkie, etengabe. Material didaktiko hauen bitartez, **hesi horiek**⁴ eraldatu nahi ditugu.


¹ **Globalizazioa** prozesu bat da, zeinaren ondorioz munduko herrialdeen arteko komunikazioa eta elkarrekiko menpekotasuna gero eta handiagoa den. Prozesu hori zenbait aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko eragiten ari da, eta merkatuak, gizarteak eta kulturak bateratzea bultzatzen ari da. Horren guztiaren ondorioz, mundu osora hedatu dira ekoizpen-prozesuak eta kapital-mugimenduak; baina, era berean, gobernuak gero eta eskuduntza gutxiago dituzte, eta "sare-gizarteak" delakoak, aldiz, gero eta gehiago. Horregatik guztiagatik, nazioarteko merkataritza eta inbertsioak izugarri hazten ari dira, muga-zergak desagertzen ari direlako eta herrialdeen interdependentzia gero eta handiagoa delako.

² **Neoliberalismoa** merkatua gobernatzeko modu bat da. Enpresa pribatuak Estatuak inposatutako kontrol-neurri guztietatik at geratzen dira, eta prezioen gaineko kontrola desagertu egiten da. Beste era batera esanda, sistema honek kapital, ondasun eta zerbitzu joan-etorri erabat askea defendatzen du. Gizarte-zerbitzu-erako (hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak, besteak beste) gastu publikoa murriztea. Desarautzea. Enpresek irabaziaz eskuratzeko oztopo diren gobernu-arauak desagerraraztea, ingurumena eta laneko segurtasuna babesten dituzten arauak barne. Pribatizazioa. Enpresa, ondasun eta zerbitzu publikoak inbertsiogile pribatuei saltzea. "Ondasun publiko" edo "komunitate" kontzeptua alde batera uztea eta, horien ordez, "norbanakoaren erantzukizuna" sustatzea.

³ "Harresiak birrinduz" kanpainatik aterata

⁴ **Munduan dauden hesiak:** <http://www.slideshare.net/endefensadeisrael/los-muros-en-el-mundo>





Globalizazioak, ingurumenaren suntsipenak eta aipatutako hesiek, besteak beste, argi uzten dute berriz zehaztu behar direla herritarren rola eta gizartearen lehentasunak egoera berri honen aurrean.

Beste era batera esanda, mundu mailako gizarte zibilak berez dagozkion eskubideak aldarrikatzeko baliabide berriak behar ditu.

Horregatik, gertatzen ari diren aldaketetan esku hartu ahal izateko, gizarte zibilaren parte-hartzea indartu behar da, eta balio eta praktika demokratikoak sustatu behar dira. Hori dela eta, balio horiek non (estatua, eskualdea...) aplikatzen diren baino garrantzitsuagoa da pertsonen zuzenean eragiten dieten erabakietan eragina dutela nabaritzea.

Alabaina, gizarte zibilik gabe ezinezkoa da **demokrazia partizipatiboa**⁵ bultzatzea. Hortaz, beharrezkoa da greziarrek “hiritar” hitzari ematen zioten zentzua berreskuratzea; alegia, hiritarrek berriro ere hiriaren eta gai publikoen gaineko erabakietan zuzenean parte hartu ahal izatea. Eta erronka horri, hain zuzen, egin behar diogu aurre “bestelako mundua posible” dela uste dugun erakundeek eta pertsonen. Hitz gutxitan, pertsona guztiak onartzen dituen eta inor kanpoan uzten ez duen gizarte-eredua dugu helburu; hots, pertsona guztien ahotsak entzuteko aukera eskaintzen duen gizartea, biztanle guztiei eskubide guztiak aitortzen dizkiena.

Sarritan, ahaztu egiten zaigu demokrazia ezari-ezarian eraikitzen dela, ez dagoela hiritarrik prestakuntza eta askatasuna duen pertsonarik ez badago, eta parte-hartzea berau sustatzen den testuinguruetan ikasten dela, etengabe ikasi ere: “Bidea bide”.

“Hiritarrek sortzen dute hiritarrak sortzen dituen demokrazia”, Edagar Morín.

Mundu mailako hiritarrak izateko, hainbat arlotan eta hainbat ikuspegitatik lan egin daiteke, baina eginkizun garrantzitsuenetako bat giza-eskubideak babestu eta sustatzea da; izan ere, herrialde askotan ukatu eta urratu egiten dira oraindik ere oinarritzko eskubide horiek. Eta giza-eskubideak dira, hain zuzen, aurkezten dizuegun material didaktiko hauen oinarria.

⁵ **Demokrazia partizipatiboa** demokrazia eredu bat da, erabakiak hartzen dituzten ordezkari-egiturak hiritarren parte-hartzerako zuzeneko edo zeharreko baliabideen bitartez osatzea proposatzen duena. Horrez gain, ordezkarien eta ordezkatuaren arteko harremana hobetu eta bi taldeak elkarrengana hurbiltzeko (lehenek bigarreni kontu emateko) prozedurak, tresnak eta bestelako elementuak sortzea bultzatzen du.

B PROIEKTUAREN AVRKEZPENA

HESIAK ERALDATZEN - TRANSFORMANDO MUROS

ZER DA?


Zortzi saiotan antolatuta dagoen “Hesiak eraldatzen” programa 12-14 urteko neska-mutilei (Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa) zuzendurik dago eta bere helburua giza-harremanetan izaten diren hesiak ezagutaraztea da: bai nork bere barruan eraikitzen dituen hesiak, bai munduko hainbat tokitan eraikita daudenak.

Aipatu hesiak bi motatakoak dira, beraz: hainbat egoeren aurrean pertsonak eraikitzen ditugun hesi etikoak, eta estatuek eraikitzen dituzten hesi fisikoak. Biek ala biek mugatzen dute gure askatasuna, eta gure bizitzako hainbat arlotan izan dezakete eragina: norberaren balore pertsonaletatik hasi eta pertsona gisa ditugun eskubideetara.

Alabaina, bada nolabaiteko lotura bi hesi mota horien artean, norberaren eta beste pertsona batzuen arteko hesia altxatzera bultzatzen gaituen sentimendua, alegia: beldurra. Izuak bultzatzen gaitu gatazkara eta, zenbait egoeratan, inolako arrazoirik gabe, geure burua babestera. Sentimendu hori da, hain zuzen, kontrolatzen eta onartzen ikasi behar duguna, elkarbizitzarako sentimendu positibo bihurtu ahal izateko.

ZEIN DA PROGRAMAREN XEDEA?

Aipatu harresi eta hesiak eraldatzea. Izan ere, geure barnean sortzen diren hesi horiek, hesi fisiko bihur daitezke, batzuetan. Hori dela eta, uste dugu norberaren eta inguratzen gaituen errealitatearen inguruko hausnarketak izan behar duela abiapuntu, ikuspegi orokorrera, mundu-mailakora iristeko. Era horretan, pertsonak libre sentitzea eragozten duten hesiak eraldatzen lagundu nahi dugu.



ZEIN DA GURE PROPOSAMENA?

Existitzen diren hesi motak ezagutzeko eta eraldatzen ikasteko prozesu bat. Prozesu horretan, hiru arlo landuko dituzte ikasleek: hesi etikoak, hesi fisikoak eta berauek eraldatzeko proposamenak:

- Hesi etikoak: Hiru saiotan, pertsonen eskubideen gaineko gogoeta egin, Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsala ezagutu, eta eskubideok zein egoeratan urratzen diren aztertuko dute. (1. Gaia Giza-Eskubideak)
- Hesi fisikoak: Hiru saiotan, pertsonen eta herrien eskubideak urratzen dituzten hesiak aztertuko dituzte, eta mota horretako hesi zehatz baten berri izango dute: Marokok Mendebaldeko Saharan eraikitakoa. (2. Gaia Hesiak)
- Eraldaketarako proposamenak: Azken bi saioetan, ikasleek hesiak eraldatzeko existitzen diren jardunbideen berri izango dute eta hesi bat eraldatzeko sormen-proposamen bat gauzatuko dute. (3. Gaia Jardunbideak)

ZEIN LAN ANTOLAKUNTZA PROPOSATZEN DUGU?

Lan-saioen antolakuntza honako hau izango da:

- Giroitze-jarduera: “Bidaia-koaderno” bat irakurriko dugu, non idazleak, era autobiografikoan, beren planetan galdu duten izaki batzuen berri emango digun. Saio bakoitzean, koadernoko hainbat orrialde eta ohar irakurriko ditugu, proposatutako jarduerak aurkeztu eta bideratzeko.
- Jarduerak edo atazak: Kontzeptuak lantzeko baliatuko ditugu; giza-eskubideak zer diren, zein eskubide-urraketa mota dauden eta hesiek zein giza-eskubide mota urratzen duten aztertuko dugu, eta hesi zehatz bat ezagutuko dugu: Mendebaldeko Saharako hesia.
- Proposamen-fasea: Ikasleek saioan landutakoari buruzko iritzia emateko eta proposamenak egiteko aukera izango dute (txostenak, horma-irudiak, panelak, antzezenak, ikus-entzunezkoak edo baliabide informatikoak erabilia sortutako materialak eta abar).

LAN MATERIALAK

- Irakasleentzako gida didaktikoa, ikus-entzunezko informazioa duen CDa eta Silvia Munten LALIA dokumentala jasotzen dituen DVDa dituen.
- Ikaslearen koaderno, jarduerak bideratzeko balio duena eta jarduerari erantzuna emateko orriak dituen.

* Eranskinetako materialak jatorrizko hizkuntzan daude.



1.

gaia
giza-eskubideak



1. JARDUERA

PERTSONEN ESKUBIDEAK

HELBURUA: Taldeak pertsonen oinarrizko eskubideak jasotzeko deklarazio bat prestatzea.

DINAMIKA: Bidaia-koadernoko hamalagarren eguneko orrialdera arte irakurri ostean, ikasleak talde txikitan (4-5 pertsona) antolatuko ditugu, eta jarduera eta honen helburua aurkeztuko diegu: *Oinarrizko giza-eskubideak jasoko dituen zerrenda idaztea.*

METODOLOGIA:

Talde txikietan, metodologia parte-hartzailea izango da, eta taldekide guztiak eman ahal izango dute beren iritzia. Talde txikietako ordezkariak talde handian azalduko dute egindakoa eta, ondoren, ordezkariak adierazitakoa eztabaidatu eta adosteko tartea izango da.

Taldean adostutako guztiak dokumentu batean jasoko dira amaieran. Errepikatutako ideiak soilik utziko dira alde batera.

ZEIN ESKUBIDE DITUT NIK PERTSONA IZATEAGATIK?

Idatzi, zure ustez, pertsona izate hutsagatik dituzun hiru eskubide:

.- _____
.- _____
.- _____

Orain entzun zure taldekideek idatzitako eskubideak eta, baten bat idatzita ez baduzu, idatz ezazu hemen.


.- _____
.- _____
.- _____
.- _____
.- _____

Taldekide guztien artean, eskubide-zerrenda bat egingo duzue.

Idatziz, irudien bidez edo baliabide informatikoak erabiliz gauzatu dezakezue egitekoa.

Talde guztien zerrendak aurkeztuko ditugu gelakide guztien aurrean, eta errepikatutako eskubideak (ezberdin adierazita egon arren, eskubide bera deskribatzen dutenak.) kenduko ditugu.

Era horretan, taldeak eskubide-deklarazio propioa izango du.



II. JARDUERA

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

HELBURUA: Ikasleek Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsala ezagutzea eta, hizkera erraza erabilita, edukia gogoratzeko gai izatea.

DINAMIKA:

Bidaia-koadernoko hamabosgarren eguna irakurriko dugu.

Irakasleak Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsal bat existitzen dela jakinaraziko die ikasleei.

Ikasleak talde txikitik (4-5 pertsona) antolatuko ditugu. Taldeen artean banatuko ditugu Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsalaren atalak (ikus eranskinak 1.Gaia Giza-eskubideak). Talde bakoitzari bost edo sei eskubide egokituko zaizkio.

Ondoren, jardueraren helburua aurkeztuko diegu: *Ikasgelan egindako eskubide-zerrendan jasotako eskubideak Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsalaren dagozkien eskubideekin lotzea.*

Jardueraren amaieran, gelan egindako zerrendako eskubideren bat deklarazioan agertuko ez balitz, idatziz jasoko litzateke batzarrean eztabaidatzeko.

METODOLOGIA:

Metodologia parte-hartzailea izango da, taldekide guztiek eman ahal izango dute beren iritzia, eta taldean adostutako guztiak dokumentu batean jasoko dira amaieran. Errepikatutako ideiak soilik utziko dira alde batera.

Talde txikietako ordezkariak talde handian azalduko dute egindakoa eta, ondoren, ordezkariak adierazitakoa eztabaidatu eta adosteko tartea izango da.

GIZAKI IZATEAGATIK DITUGUN ESKUBIDEAK

- 1.- _____
- 2.- _____
- 3.- _____
- 4.- _____
- 5.- _____
- 6.- _____
- 7.- _____
- 8.- _____
- 9.- _____
- 10.- _____

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALEAN JASOTAKO ESKUBIDEAK

- 1.- _____
- 2.- _____
- 3.- _____
- 4.- _____
- 5.- _____
- 6.- _____
- 7.- _____
- 8.- _____
- 9.- _____
- 10.- _____



III. JARDUERA

ZEIN EGOERETAN DAUDE ARRISKUAN GURE ESKUBIDEAK ?

HELBURUA: Taldekideek, pertsona edo talde baten egoera aztertuta, eguneroko elkarbizitza oztopatzen duten eta pertsonen eskubideak urratzen dituzten eragozpenak identifikatzea.

DINAMIKA:

Bidaia-koadernoko hamaseigarren eguna irakurriko dugu.

Elkarbizitza oztopatzen duten eta pertsonen eskubideak urratzen dituzten eguneroko bizitzako hainbat egoera (ikaskideen artekoak, familiako kideen artekoak, lagunen artekoak, berdinen artekoak...) aurkeztuko dizkiegu. (Ikus eranskinak, I. Gaia Giza-Eskubideak, bideo interesgarriak)

Hainbat galdera planteatuko dizkiegu, une batez nork bere hausnarketa egin dezan.

Galderak:

- 1- Inoiz esan al duzu "Ez dago eskubiderik!"? Zergatik?
- 2- Noizbait bazterturik sentitu al zara? Noizbait beste norbait baztertu al duzu? Zergatik?
- 3- Egin ez duzun zerbaiten erruduntzat jo al zaituzte inoiz? Azalpenak emateko aukera izan al zenuen ala besterik gabe epaitua izan zinen?
- 4- Ezagutzen ez zenuen pertsona bati buruz gaizki esaka aritu al zara inoiz? Pertsona hori ezagutzen saiatu al zara ondoren?

Bikoteak egingo ditugu, eta galderen inguruan egindako hausnarketak komentatuko dituzte. Erantzunak Ikaslearen koadernoan, dagokien orrian idatziko dituzte.

Ondoren, talde handian bildu, eta komunean jarriko dugu bikoteka egindakoa. Bikotekide bakoitzak bere kideak esandakoa azalduko du.

Ikasleek azalpenak eman bitartean, jarduera-dinamizatzaileak aipatzen diren egoerak eta oztopoak jasoko ditu idatziz. Jasotako guztia arbelean edo *papelografoan* geratuko da idatzita.


Lau edo bost pertsonako taldeak egin daitezke jarduera amaitzeko. Talde bakoitzak kartel bat diseinatuko du, eta taldean aipatutako egoerak eta jarrerak eta norberaren nahiz besteen bizitzan eragiten dituzten oztopoak jasoko ditu esaldien bidez. Jardueraren azken zati hau marrazkien bitartez edo antzezeppenak eginez ere gauza daiteke.

METODOLOGIA:

Jarduera honen hasieran, introspekzio-lana egin behar da; hots, ikasle bakoitzak bere bizipen pertsonalei buruz hausnartu beharko du. Hori dela-eta, motibazioa ezinbestekoa da jarduera hau gauzatu ahal izateko. Jardueraren lehen zatia binaka egingo da, elkarrizketa pertsonala sustatzeko.

Talde handian lan egitearen helburua, ikaskideak azalduetako egoerak gainontzeko gelakideei azaltzean, objektibotasunez eta giza-eskubideen ikuspegitik aztertu ahal izatea da.

Amaitzeko, ondorioak talde txikitari jasoko dira jarduera dinamikoagoa izan dadin.



2.

gaia
hesiak



IV. JARDUERA

HESIAK

HELBURUA: Ikasleek munduan zehar gertatzen diren giza-eskubideen urraketa kasu errealen berri izatea: hesiak.

DINAMIKA:

Hesiei buruzko PowerPointaren (Eranskinak 2. Gaia, Hesiak eta CDa) lehen zatia ikusiko dugu eta Bidaia-koadernoko hogeita batgarren egunera arte irakurriko dugu.

Jarraian, Mendebaldeko Saharako hesiari buruzko informazioa bilatzeko proposatuko diegu ikasleei eta, horretarako, Internet edo bestelako baliabideak erabili ahal izango dituzte (Ikus eranskinak, bideo interesgarriak). Hiru edo lau pertsonaz osaturiko talde txikietan egin dezakete lan.

Informazioa bilatzeko, honako galdera hauek luzatuko dizkiegu:

-Noiz eraiki zen hesia? Nork eraiki zuen? Zergatik edo zertarako? Nor banatzen edo urruntzen du?

Erantzunak Ikaslearen koadernoan, dagokien orrian, idatziko dituzte. Koadro bat dago galderako.

Behin informazioa jasota, gainontzeko taldeek jasotakoarekin konparatu eta osatuko dugu. Horretarako, talde bakoitzak aurkezpena egingo du gela osoaren aurrean.

Informazioa jasotzeko erabilitako orria gorde egingo dugu, geroago egingo dugun beste jarduera batean erabiltzeko.

METODOLOGIA:

Ikasleak lanean jarriko ditugu: emandako informazio-iturriak erabiliz eta emandako galderei erantzunez, informazioa bilatu eta gaia jorratuko dute.

Talde txikitan lan egingo dutenez gero, elkarlanean egin beharko dute lan.

Talde txikitan egindakoa talde handian azaltzeko, ordezkariak aukeratu beharko dira talde bakoitzean. Horrez gain, moderatzaile lanak egin eta informazioa jasoko duen pertsona bat edo bi izendatu beharko dira.

V. JARDUERA

MAROKOK MENDEBALDEKO SAHARAN ERAIKITAKO HESIA

HELBURUA:

Ikasleek hesiak eraikitzeak zein giza-eskubide urratzen dituen jakitea, eta saharar herriaren (Lalia) kasu zehatza ezagutzea.

DINAMIKA:

Bidaia-koadernoko hogeita bigarren eguna irakurriko dugu.

PowerPointaren bigarren zatia eta "Lalia" bideoa ikusiko ditugu. Debate bat antolatuko dugu.

Lehen zatia:

Jardueraren helburua aurkeztuko dugu: *Hesi bat eraikitzeak zein giza-eskubide urratzen dituen jakitea, eta saharar herriaren (Lalia) kasu zehatza ezagutzea.*

Ondoren, galdera bat planteatuko dugu debatego abiapuntutzat: *Zein ondorio izan du Marokok hesia eraikitzeak Mendebaldeko Saharan (Lalia) bizi ziren pertsonengan?*

Debatea egin bitartean, ekarpenak Ikaslearen koadernoan, dagokion orrian, jasoko dira.

Bigarren zatia:

Behin debatea amaituta, ikasleak talde txikitan (4-5 pertsona) antolatuko ditugu. Debattea egin bitartean jasotako ekarpenak Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsaleko artikuluekin alderatuko dira. Mendebaldeko Saharan Marrokok eraikitako hesiaren ondorioz, zein giza-eskubide urratzen diren jasoko dute Ikaslearen koadernoan, dagokion orrian.

Marokok Mendebaldeko Saharan eraikitako hesia giza-eskubideen aurkakoa da:

Artikulua: (giza-eskubideen deklarazio unibertsala).....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

Artikulua:.....

Marokok eraikitako hesiak sahararren hainbat eskubide urratzen ditu, besteak beste,

METODOLOGIA:

Jardueraren lehenengo zatian, debatea egingo da. Debattea gauzatzeko, bi pertsona aukeratu behar dira: bata hitz egiteko txandak antolatu ditzan, eta bestea ekarpenak idatziz jaso ditzan.

Jardueraren bigarren zatian, metodologia parte-hartzailea izango da eta ikasleek elkarlanean aritu beharko dute. Talde txikitan lan eginez, ikasle guztiak izango dute ekarpenak egiteko aukera eta, ondoren, talde handian azken dokumentua idatziko da.

VI. JARDUERA

HESIAK ETA GIZA-ESKUBIDEAK

HELBURUA:

Hesiak eraikitzeko arrazoiak irudien bidez aurkeztea, eta hesiek pertsonen bizitzan dituzten ondorioak aurkeztea.

DINAMIKA:

Aurreko jardueretan, Mendebaldeko Saharako hesiari buruzko informazio ugari jaso da. Jasotako informazioa hobeto ulertu ahal izateko, hesi sinboliko bat (horma-irudia, panela...) egiteko proposatuko diegu ikasleei. Horretarako, aurreko jardueretako (IV. eta V. jarduerak) ekarpen guztiak jasoko dituzte, era ordenatuan eta irudien bidez. Hona hemen jarraitu beharreko pausoak:

- Hesiaren eraikuntza (IV. jardueran jasotako informazioa).
- Hesiaren ondorioak (V. jardueraren I. zatian jasotako informazioa).
- Saharar herriari ukatzen zaizkion giza-eskubideak (V. jardueraren bigarren zatian jasotako informazioa).

Lehenengo, talde txikiak egingo dira, jasotako informazioari buruz hitz egin eta hesia egiteko proposamenak jasotzeko.

Ondoren, proposamenak talde handian aurkeztuko dira.

Jasotako proposamen guztien artean egokiena hautatuko da.

Ondoren, "hesia" eraikitzeko lanak nola banatu erabakiko da.

Amaitzeko, hesi sinbolikoa eraikiko da eta IV. eta V. jardueretan jasotako ekarpenak jarriko dira.

METODOLOGIA:

Metodologia parte-hartzailea izango da eta, bai talde txikitan, bai handian, erabakiak hartuko dira. Horrez gain, sormenerako aukera ere izango da; izan ere, taldeak hesi sinbolikoa eraikitzeko modua erabakiko du eta hesia egingo du, jarduera-bloke honi amaiera emateko.



VII. JARDUERA

JARDUNBIDEAK

Helburua: Hesiak eraldatzeko existitzen diren jardunbideen berri izatea.

Dinamika:

Bidaia-koadernoko hogeita zazpigarren eguna irakurriko dugu. Lau talde egingo ditugu. Talde bakoitzak hesiak eraldatzeko jardunbide bati buruzko informazioa (Ikus eranskinak 3. Gaia, Jardunbideak eta CDa) bilatu beharko du. Jardunbideak honako hauek dira:

- Artifariti
- Banksy, graffiti-arteak
- Mila eskuz osaturiko katea
- Kontzientziak ez du hesirik

Talde bakoitzak egokitu zaion gaiari buruzko informazioa bilatuko du eta, zailtasunik izanez gero, informazio-iturriak aipatuko dizkiegu.

Informazioa bilatu bitartean, oharrak har ditzakete dagokion koaderno-orrian.

Amaitutakoan, aurkezpena egingo dute gelakide guztien aurrean. Aurkezpena egiteko irudiak, bideoak edo beste edozein material erabili ahal izango dute.

Metodologia:

Ikasleak jarriko ditugu lanean: informazioa bilatuko dute eta, horretarako, taldean egingo dute lan, baina era autonomoan.

Talde txikitan lan egingo dutenez gero, elkarlanean egin beharko dute lan.

Gelakide guztien aurrean egin beharreko aurkezpenean, taldekide guztiek hartuko dute parte.

VIII. JARDUERA

HESIAK ERALDATZEN

Helburua: Hesiak eraldatzeko sormen-proposamen bat diseinatzea.

Dinamika:

Bidaia-koadernoko hogeita hamargarren eguna irakurriko dugu. Ikasleak talde txikitan (4-5 pertsona) antolatuko ditugu. Talde bakoitzak hesiak eraldatzeko sormen-proposamen bat diseinatu eta gauzatu beharko du:

- Existitzen diren hesi fisikoen gainean lan egin daiteke, ikastetxeko beste talde batzuk sentzibilizatzeko. Gida didaktikoan ikasitakoa bali dezakete eta/edo informazio gehiago bilatu.
- Gure inguruan ditugun eta giza-eskubideak urratzen dituzten hesi ikusezinak ere lan ditzakete (harreman-hesiak, komunikazio-hesiak, eta abar).

Zenbait iradokizun eginez lagun diezaiekegu: erakusketa bat antolatzea, antzerki-lan bat prestatzea, ikus-entzunezko muntaia bat sortzea, eta abar. Sortutako ideien arabera kalkulatu da zenbat saio behar diren ideiak gauzatzeko.

Metodologia:

Ikasleak jarriko ditugu lanean: sormen-proposamena diseinatu eta gauzatu beharko dute beren kabuz; alegia, proposamena gauzatzeko baliabideak bilatu beharko dituzte. Horretarako, VII. jardueran ikasitako adibideak erabili ditzakete.

Jarduerak parte-hartzailea izan behar du, hots, taldekide guztiek izango dute beren ideiak proposatzeko aukera, eta denen artean gauzatu dute aukeratzeko duten proposamena.



IRAKASLEAREN EBALUAKETA

“Hesiak eraldatuz” unitate didaktikoa amaitu ostean, ikasleekin egindako lanari buruz hausnartzera gonbidatzen zaitugu.

Unitate didaktikoaren planteamendua egokia iruditu al zaizu Giza-eskubideen gaia lantzeko?

- BAI EZ

Zergatik? _____

Zein iritzi duzu materialei buruz?

Gida didaktikoa

- Materiala erabilgarria da eta aurkezpena egokia
 Materiala erabilgarria da, baina aurkezpena ez da oso egokia
 Aurkezpena egokia da, baina materiala ez da oso erabilgarria
 Materiala ez da oso erabilgarria eta aurkezpena ere ez da oso egokia
Beste _____

Ikaslearen koaderno

- Itxura erakargarria da eta materiala praktikoa
 Itxura erakargarria da, baina materiala ez da oso praktikoa
 Materiala praktikoa da, baina itxura ez da oso erakargarria
 Itxura ez da oso erakargarria eta materiala ere ez da oso praktikoa
Beste _____

CDko material osagarria

- Materiala erabilgarria da eta aurkezpena egokia
 Materiala erabilgarria da, baina aurkezpena ez da oso egokia
 Aurkezpena egokia da, baina materiala ez da oso erabilgarria
 Materiala ez da oso erabilgarria eta aurkezpena ere ez da oso egokia
Beste _____

DVDko material osagarria

- Itxura erakargarria da eta materiala interesgarria
 Materiala interesgarria da, baina itxura ez da oso erakargarria
 Itxura ez da oso erakargarria eta materiala ere ez da oso interesgarria
Beste _____

Zein iritzi duzu informazioari dagokionez?

- Eskasa Egokia Gehiegizkoa

Zein zailtasun izan duzu materialarekin lan egitean?

Uste duzu gaiak ikasleen interesa piztu duela?

- Izugarri Dezente Gutxi Batere ez

Ikasleek gogoz parte hartu al dute?

- Guztiek Gehienek Batzuek Batek ere ez

